


# HAURRA ETA LITERATURA



M<sup>a</sup> Asun LANDA ETXEBESTE

Estatistikek diotenez populazioaren %60-ak ez omen du irakurtzeko ohiturarik.

Datu hauen aurrean, gizartearen irakurtzeko ohitura eta zaletasuna suspertu nahi badira haurtzarotik hasi egin behar dela esaten dugu denok, gauza jakina bait da txiki txikitatik sortzen dela zaletasun hori, gerorako garrantzi handia izango duena.

Nola sortzen da irakurketarako zaletasuna? Eskuarki, hiru eragile aipatu izan ohi dira holakoetan:

- 1.- Eskolan ematen zaion leku eta garrantzia
- 2.- Etxekoen irakurtzeko ohitura
- 3.- Irakurgaien atsegina eta erakargarritasuna.

Azken pundu hau dela eta haur literaturarena aipatu beharrean aurkitzen gara, gaur egun haur literaturari atxiki ohi zaion funtzio nagusietako bat irakurtzaletasuna biztu eta sendotzearena bait da. Egia da, haur literaturak baditu beste funtzio garrantzitsu batzu, hala nola, irudimena, fantasia eta sentibilitatea lantzearenak, esate baterako. Horregatik eta pedagogoa eta irakasle aurrerakoi askoren lanaren ondorioz haur literatura eskolan sartu da eta oso gauza onuragarria dela ezin da ukatu. Baina...

## ESKOLA ETA HAUR LITERATURA

Baina nik ez dakit noraino, gaur egun eta ezagutzen ditudan kasu batzuen arabera, irakaskintzak haur literaturari ematen dion erabilera oso egokia den, batez ere erabilera horrek askotan irakurtzearen plazerarekin zerikusi handia ez duenean: nozio-gramatikal batzu landu, laburpenak egin, zenbait galderari erantzun... Ludikotasuna urrutiti dago holakoetan eta ez da ahaztu behar, haur literatura erabat loturik dagoela zentzu ludikoa eta atsegingarritasunarekin. Batzutan, haur literatura eta testu-liburuen tratamenduen artean diferentziarik ez dagoela ematen du eta azken hau onartezina da guztiz.

Ene iritziz, literatura irakurketaz ari garenean irakurketa libreaz ari gara, plazerra ematen duen irakurketaz, "denbora galtzeaz" ari gara... Garai batean, kontzeptu abstraktuak eta jakingaiak lantzen ez zituzten liburuak irakurtzea denbora galtzea zen gurasoentzat eta irakasleentzat. Hortik ez zen nonbait ezer probetxuzkorik ikasten eta gainera, irakurketa gozamen bezala hartzea "arrikusgarri" samarra iruditzen zi-

tzaien. Orain, berriz, haur literaturaren garrantzi eta beharretaz jabetu garenean, haurrek irakur dezatela nahi dugu, beraiegan irakurzaletasuna bultzatu eta sendotu nahi dugu, baina jarraitzen dugu nolabaiteko etekin bat eskatzen irakurketa horietatik, haur literaturatik... hau da, irakurketa hori didaktikoa edo pedagogikoa izan dadila.

Eta hori eztabaidagarria da.

## HAUR LIBURUA ETA HAUR LITERATURA

Irakurketaren prozesua hasten duenetik gazte bihurtu arte, haurrak ere askotako liburuak irakur ditzake. Horietako asko oso didaktikoak eta atseginak izan daitezke, haurren adinari egokituak, ilustrazio aldetik oso zainduak, bere ikasteta prozesuan laguntzaile eta argibide izan daitezkeenak, baina... idazlan literarioak ez direnak.

Hau da, ene iritziz, ondo bereiztu beharko genukeen gauza bat da hau: haur liburua eta haur literatura ez dira gauza bera. Haur liburuaren esparrua zabala bezain liluragarria izan daiteke, gero eta liburu zoragarri gehiago egiten bai dira gaur egun haurrentzat... baina ezin esan literarioak direnik! Astronomiari buruzko liburu bat ederra izan daiteke oso eta haurrak oso gustora irakurriko du, baina ez da lan literarioa, ez da haur literaturako liburu. Zeren haur literaturak duen espeziifikotasuna bere literaturtasuna bait da, hau da, helburu estetiko edo artistiko batez egindako idazlanak direla...

Eta hauxe da, askotan, haur literaturaren erabileraz jarduten dugunean ahazten duguna: haur literatura erabili behar dela ez bakarrik haurrak irakurzaletzeko, (horretarako haur liburu asko eta asko oso egokiak izan daitezke!), baizik haurrak LITERATURAZALETZĒKO. Beste era batean esanda, haur literaturaz baliatzea haurrengan irakurzaletasuna biztu eta sendotzeko ez zait nahikoa iruditzen, zenbait haur literaturako idazlanen alde literarioak edo artistikoak, baloratzen, gozatzen eta —ahal baldin bada— kritikatzeko erakutsi beharko litzaieke haurrei.

Beste alorretan ere, haurrek eritzi edo atsegina propioak izan ditzaten nahi badugu, haur literaturaren bidez haur bakoitza bere nolabaiteko "gusto literarioa" osatuz joan dadila da haur literaturari eska diezaioketuen betebeharrak eta funtzio nagusienak.

Haur literaturaren literaturtasunean sinesten badugu bederen.